

3/17

irizpena

“Basque Industry 4.0” 2017-2020
Industrializazio

Planari buruzkoa

Bilbon, 2017ko ekainaren 30ean



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

3/17 IRIZPENA

“Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Planari buruzkoa

Bilbon, 2017ko ekainaren 30ean

I.- AURREKARIAK

2017ko ekainaren 6an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardean idazki bat aurkeztu zen, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarena; horren bidez, “Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Planaren berri ematen zen, eta hari buruzko irizpena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.d) artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Berehala, dokumentuaren kopia bana bidali zitzaizen Batzardearen Osoko Bilkurako kide guztiei, egokituz jotzen zituzten proposamenak eta iritzia bidaltzeko, eta horien berri emateko dagokien Batzarde Iraunkorrari edo Lan Batzardeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardearen Funtzionamendu Araudian ezartzen denaren arabera.

Ekonomiaren Garapen Batzardeak bilera egin zuen 2017ko ekainaren 19 eta 23an, lehen Irizpen-Aurreproiektua eztabaidatzeko; beste bilera bat deitu zen 27rako, eta egun horretan onartu zen Irizpen-Proiektu hau, zeina 2017ko ekainaren 30ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardera helarazi baitzitzaion eta han aho batez onetsi baitzen.

II.- EDUKIA

“Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Planaren testua bost puntuz osatua da: aurkezpena, hiru bloke handi eta hainbat eranskin.

- 1.- “Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Planaren aurkezpena.
- 2.- I. blokea: Abiapuntuak jasotzen ditu.
- 3.- II. blokea: “Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Plana bera jasotzen du.
 - Planaren hedadura-esparrua
 - Planaren printzipioak
 - Helburu estrategikoak
 - Jarduera-ildo eta ardatzak
 - Ekimen nagusiak
 - Aurrekontu ekonomikoa
- 4.- III. blokea: Planaren gobernamentua jasotzen du
 - Kudeaketa- eta koordinazio-eredua
 - Jarraipen- eta ebaluatze-sistema
- 5.- Eranskinak

Jarraian, batzorde honek baloratutako testuko kapituluaren sintesi labur bat dator.

PLANAREN AURKEZPENA

Aipatzen da krisialdi ekonomikoko zazpi urtek ahulduta utzi zituztela gure gizartea eta gure enpresa-ehuna, horien ostean, ekonomiaren hazkunde-fase batean gaudela berriro, eta Planak eskaintzen duela gida bat tartean diren Jaurlaritzako areak egiten ari diren industria sustatzeko lana egituratzeko eta koordinatzeko.

Planak helburu hauek ditu: EAEko industria-ekosistema indartzeko baldintzak sortzea, Jaurlaritzak industriarekin konpromisoa bilakatzea ekonomia-arloan jarduteko ardatz nagusi, lehiakortasunari laguntzeko tresnak eskaintzea EAEko enpresei, eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarreragina errazteko egituratutako bideak ezartzea.

Halaber, aipatzen du gaur egungo egoeraren ondorioz berraztertu behar dela industriadat jotzen dugunaren "perimetroa", gaur egun, inoiz baino areago, ekoizpen-jarduera baino askoz gehiago baita, eta teknologia baino askoz gehiago.

Dauden beharrezko erantzuteko, Industrializazio Planak bat egiten ditu industria-politikako oinarritzko tresnak, zeinak urteetan arrakasta izan baitute, garai eta beharrezko berriei behar bezala egokituta, eta tresna eta jarduketak berriak.

Hala, hainbat apustu egiten ditu: zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko jarduerak sendotzea eta finantzaketa-tresnen eskaintza handitzea; I+G arloko gastua handitzea eta nazioartekotzeko jauzi kualitatiboa egitea; EAEko enpresak handitze eta errotzea sustatzea, eta enplegua sortuko duten inbertsioak erakartzea indartzea; proiektu berriak sustatzea etorkizuna duten teknologia eta industriako eremuetan; balio-kate osoen digitalizazioa eta zerbitzu aurreratuak garatzea erraztea; enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetzak sendotzea kluster-politikaren bidez, eta akordioak lortzea puntako eskualdeetan, Alemania eta Eskandinavia kasu.

Aurkezpen hau amaitzeko, esan behar da Planean zehaztutako lerroek diseinatzen dutela Eusko Jaurlaritzak defendatzen duen eredua, zeinak, haren ustez, gure gizartearen gehiengo oso zabal baten lehentasunak islatzen baititu. ETA, dei egiten die enpresei, enpresaburuei, langileei, enpresaburu-elkarteei, sindikatuari, eragile teknologikoei, unibertsitatei eta lanbide heziketako ikastetxeei, denen artean eraikitzeko EAEko industriaren etorkizuna, zeina gure ongizate-ereduaren giltzarria baita.

I. BLOKEA: ABIAPUNTUAK

Blokea honako atal hauetan dago banatuta:

Lehenik, **Planaren zergatiak eta aukerak** jasotzen dira; haien artean, honako hauek aipatu behar dira:

- Batez ere ekonomia aurreratueta gertatzen den bezala, zerbitzu-sektoreak gero eta garrantzi handiagoa du Euskadin, baina industria da oraindik EAEko ekonomiaren motorra; helburua da 2020an ekonomia osoaren pisuaren % 25 izatea berriro. Industria giltza-sektorea Euskadiko ekonomiaren errehabilitazioa finkatzeko eta lortzeko legegintzaldi honetako helburu den 2020rako langabezia-tasa % 10era murriztea eta Europar Batasuneko per capita BPGd-aren % 125era iristea.
- "4.0 industria" deiturikoak protagonismo berezia hartzen du: EAEko industriari ikuspegi kontzeptual eta estrategikoa berria exijitzen dion paradigma-aldaketa baten aurrean jartzen baikaitu.

Bigarrenik, **Planaren 3 Blokeak eta hura egiteko erabili den metodologia** azaltzen dira.

Hirugarrenik, erreferentziako politika- eta arau-testuingurua aurkezten da: haren lehentasunak, edukiak eta jarduteko tresnak baldintzatzen dituen nazioarteko, estatuko eta EAEko testuingurua.

Laugarrenik, **Euskadiko ekonomiaren eta industriaren egoera** aztertzen da, eta honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

Ekonomiaren egoera:

- Hurrengo urteetarako aurreikuspenak positiboak dira, eta hazkundea apur batean motelduko bada ere (BPGd-aren hazkundea: 2016an, % 3ren inguru; 2017an, % 2,5; eta 2020rako, % 2).
- Langabezia-tasa oraindik handia da (% 12,5); horrenbestez, BPGd-aren bilakaera onak ez digu pentsarazi behar krisia amaitu denik. Jaurlaritzaren helburua da langabezia-tasa % 10 baino txikiagoa izatea 2020rako.
- 2016an jarduera ekonomikoa 2008ko mailara iritsi zen berriro, baina zortzi urte horietan 80.000 lanpostu baino gehiago galdu dira (krisialdiaren aurretik zeudenen % 8,5). Egoera horrek, EAEko ekonomiaren produktibitatea hobetu dela erakusten duen arren, oso gizarte-inpaktu negatiboa izaten ari da. 2017-2020 aldian BPGd-a batez beste % 1,5en eta % 2ren artean handituko delako hipotesiaren arabera, espero da 2020ko amaierarako berreskuratu izana krisialdian suntsitutako enplegu gehiena.
- Industriak ezberdin samarra den errealitate bat erakusten du: Haren jarduera-maila oraindik urrun dago 2008ko mailatik, eta enplegua ez da erreuperatzen hasi 2016ra arte.
- Enplegua narriatu arren, Euskadiko ezberdintasun-indizeek igoera txiki bat baino ez zuten izan, 2014an, eta Estatuan eta Europan (bere osotasunean) baino nabarmen txikiagoak dira.
- EAEko ekonomian industriak duen pisua % 24koa da gaur egun, 2008ko balioetatik urrun oraindik. Industria-sektorearen jaitzierarekin eta eraikuntza amiltzearekin, krisiak areagotu zuen EAEko ekonomiak hirugarren sektorerara jotzea; gaur egun ia % 70ean oinarritzen da zerbitzuetan, 2007an baino 9 puntu gehiago.
- Industriak izan duen pisu-galera, handiagoa izan da Euskadin Europako beste herri batzuetan baino. 2005-2015 aldian ehuneko 6 puntu galdu ziren; Espainian eta Europan Batasunean, berriz, puntu bat, eta Alemanian bere horretan geratu zen. Hala ere, krisiaren ondorio den EAEko ekoizpen-egiturak oraindik ere Alemaniakoaren antz handiagoa du Espainiakoarena edo Frantziakoarena baino. Zehazki, EAEko BEGd industrialak osotasunaren % 24koa zen 2015ean; Europan Batasunean, aldiz, % 19koa, eta Alemanian % 26koa.
- EAEko ekonomiak oraindik erakusten du nahiko ekoizpen-profil tradizionala (manufaktura-jarduera klasikoak, Metalgintza eta produktu metalikoak, kasu; eta Makineria eta ekipoak), eta zerbitzu aurreratuak ez daude oso garatuta; eskualde aberatsago eta dinamikoetan, ordea, pisu handia dute horiek.
- Enpresa txiki eta ertainak dira nagusi, Europako gainerako ekonomietan bezala, Alemanian izan ezik.

Ikuspegi konparatibo batetik, honako hau aipatze da:

- Krisialdiko urteetan, esportaziorako bere joera handitu du EAEko industriak, barne-eskaria amiltzearen ondorioz. Industriarena da EAEko esportazioen ia % 99 eta erregularitasunez esportatzen duten enpresen % 93: guztira, 2.891 enpresa esportatzaile, manufaktura-industriako enpresa guztien % 27.
- Esportazioekin gertatzen den ez bezala, EAEko enpresek atzerrian egindako inbertsio zuzena maila apaletan mantentzen da 2012az geroztik, 2008-2011 aldiko zenbatekoetatik urrun.
- Euskadiko I+G alorreko gastua handitu zen 2008-2012 aldian, baina harrezkerostik joera negatiboa erakusten du.
- Lan-kostuak aldi luze batez hazi ondoren (2008/09 arte), zuzenketa bat gertatu zen 2008/09-2011 aldian, eta 2011-2013 aldian berriro hazi zen.
- Energiaren kostua desabantaila da gaur egun estatu espainarreko industriarentzat, Alemania eta Frantziaren aldean, besteak beste. Lehiakortasun-arazo hori areagotzen da arrazoi historikoak direla kausa erdi-tentsiokotzat jotzen den sare bati konektatuta dauden EAEko enpresen kasuan.
- EAEko industriaren egoera finantzarioa nabarmen hobetu da aurreko aldiaren aldean.
- Euskadi erakargarriago bilakatu da atzerriko inbertsoreentzat.

- 2017ko otsailean Europako Batzordeak argitaratutako 2016ko Regional Competitiveness Indexaren arabera, lehiakortasunari dagokionez, Euskadi 119. posizioan kokatuta dago, Europar Batasuneko 263 eskualdeen artean, nabarmen beherago per capita BPGd-aren arabera duen posizioa baino (263tik 51.a). Identifikatutako ahulezia nagusiak dira egonkortasun makroekonomikoa, garraioaren azpiegiturak, lan-merkatuaren efizientzia eta berrikuntza.

Industriaren egoera:

Kluster-Elkarteen zifra makroekonomikoak hobetu dira, baina badira zenbait erronka: nazioarteko ziurgabetasun politikoa, sektore batzuetan pertsonal kualifikatua aurkitzeko zailtasuna, prezioen aldetik presioa handitzea, lehia handiagoa gorabidean dauden herrialdeetako enpresen partetik, garapen teknologikoaren beharra (produktuan zein prozesuan, digitalizazioa, gauzen interneta edo big data barne), EAEko enpresentzat garrantzitsuak diren gorabidean dauden herrialde batzuetako merkatua batzuk moteltzea...

Bosgarrenik, **2014-2016 Industrializazio Planaren ebaluazioa** jasotzen da Jarraian, zerrendatuko ditugu gutxien aurreratu deneko arloak, eta erantzuteko dauden erronkak honakoak dira:

ARDATZAK	GUTXIEN AUERRERATU DENEKO ARLOAK / ERANTZUTEKO DAUDEN ERRONKAK
1. ARDATZA: Enpresa txiki eta ertainen finantzaketa eta berregituraketa	Laguntza-eskaintza zabala dagoen arren, enpresa txikietako batzuek sentitzen dute ez zaiela behar adinako arreta ematen.
2. ARDATZA Industria-proiektu estrategikoak sustatzea	Enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetzaren desiratzekoa dena baino txikiagoa da. Beharra edo aukera dago balio handiagoa sortzeko energia- eta industria-alorretako proiektu garrantzitsuetan egindako inbertsioetatik (hidrokarburoen zundaketa, Ibil, Bidelek, Bimep...). Ikusten da zaila dela "etxerako lanak" egin dituzten eta nolabaiteko dimentsioa lortu duten enpresei laguntzea.
3. ARDATZA Industria aurreratu finkatzea	Teknologia-transferentzia sustatzen jarraitu beharra dago, eta enpresa-ehunera gehiago hurbildu, batik bat enpresa txikietara. Inbertsio pribatua sustatu behar da, enpresa bakoitzaren estrategia teknologikoari jarraituz. Industriaren digitalizazioa hasiberria da oraindik; dena den, nazioartean ere, haren garapena mugatua da oraindik. Industria-lurzuaren politika suspertu beharra dago; aurreko aldirian, zailtasun ekonomikoak gainditzea izan zuen ardatz. Ekintzailtza oraindik ere aukera minoritarioa da EAEko gazteen lan-lehentasunen artean. Hazteko gaitasuna duten startup enpresak sortzeko zailtasuna. Ikusten da enpresa txiki askok oraindik dauzkatela kudeaketako eta prestakuntzako oinarriko beharrianak. Pertsonen parte hartze programak ez dute espero zen eskaera izan, batez ere LANPAR funtsak.
4. ARDATZA Industria- eta energia-testuinguru lehiakorra sortzea	Energiaren kostua oraindik ere lehiarako desabantaila da EAEko industriarentzat (eta Estatukoarentzat), Europako beste herrialde batzuen aldean. Badago hobetzeko eremu zabal bat enpresen energia-kudeaketa aurreratuan.

Seigarrenik **ingurunearen egoera** aztertzen da, eta aipatzen da Plana gauzatzekoa dela Europako Batzordeak “erronka garai bateko hazkunde apal”tzat eta ELGEK “hazkunde txikiko tranpa”tzat jotzen duten testuinguru ekonomiko batean; horretan, inbertsioaren eta nazioarteko merkataritzaren aurrerapen oso txikiak markatzen dute munduko ekonomia.

Dela dela, hazkunde ekonomiko apala espero izateak ez du esan nahi inguruneko aldaketen erritmoa motelduko denik, alderantziz baizik. Ingurunea oso aldakor eta konplexua izango da. Aldaketa sakona ikusten da industrian, negozio-ereduak eta sektoreen eta balio-kateen egitura aldatzeko ahalmena duten teknologia-jauziekin. Aspalditik munduak “laugarren industria-iraultza” deitu zion aldaketa horri, eta urte batzuetatik hona “4.0 industriaz” hitz egiten da naturaltasunez Euskadin.

4.0 industria (laugarren industria-iraultza)

Big data
Robotika eta ekoizpenaren automatizazioa
Digitalizazioa / Industriako Internet / Sistema ziberfisikoak
Ikusmen artifiziala
Cloud computing / birtualizazioa
Zibersegurtasuna
Errealitate areagotua
Simulazioa
Fabrikazio aditiboa

Eskaeraren araberrako lana / “Gigeconomy”

(lehen langile lan-kontratudunek betetzen zituzten beharrianak betetzeko profesional independenteak kontratatzeko joera)

Serbituzazioa

Garapen jasangarria

Aldaketa demografikoak

zahartzea, talentu lortzeko lehia, kultura-aniztasuna

Kapitalaren jabetza globalizatzea

Sektoreen eraldaketa eta hibridazioa

Maila globalean KET edo teknologia erraztaileak
(nanoelektronika, nanoteknologia, bioteknologia, material aurreratuak
eta fotonika)

Euskadin. Automozioa, ibilgailu elektrikoaren eta ibilgailu
autonomoen eragin bikoitzagatik

Gorabidean dauden ekonomia berriak

Enpresen hilkortasuna handitzea

Bloke honetako azken atala AMIA analisisietarakoa da, eta aurkezteko **EAEko industriaren lehiakortasunerako *erronkak*** Honako hauek dira:

1. Digitalizazioa eta serbituzazioa Bide luzea dago egiteko
2. Automatizazioa, enplegurako dakarren arriskua ahaztu gabe
3. Balio erantsiko negozioak lortzeko teknologia eta ezagutza
4. Nazioartekotze handiagoa
5. Bezeroarengana orientatzea
6. Lankidetzarako eremu berriak
7. Pertsonen aldeko apustu handiagoa. Hainbat desorekak markatzen duten erronka baten aurrean gaude:

- Paradoxa makroekonomikoa. Euskadik berri lortu du krisiaren aurretik zuen jarduera ekonomikoaren maila, baina lanpostuen % 10 galdu ditu (eta enpleguaren kalitatea okertu da).
- Lan eskaintzaren eta eskaeraren arteko desoreka. Langabezia-tasa % 12 baino handiagoa izanik ere, enpresa ugari arazoak izaten ditu zenbait lanpostu betetzeko, eta ikastetxeek ez dute betetzen prestakuntza teknikoko plazen eskaintza, nahiz eta horrek enplegagarritasun-indize altuak eduki.
- Desoreka demografikoa. Biztanleriaren zahartzearen ondorioz, populazio aktiboa jaitsi da azken urteotan, eta aurreikusten da joera berari eutsiko diola.
- Jabetzaren eta langileen arteko behar baino lerrotatze txikiagoa enpresa askotan; hori oztopoa da lehiakortasunerako eta garapen profesionalerako.

8. Enpresak eta enpresaburuak aintzatestea

9. Aberastasuna sortzea. EAEko industria hazteko eta bere errentagarritasuna handitzeko behar dago, horrela berreskuratzeko sendotasun finantzarioa, inbertitzeko eta akziodunei zein langileei behar bezala ordaintzeko gaitasuna.

10. Euskadiko erabakiguneak. Lan egin beharra dago EAEko enpresa handiak garatzeari eta errotzeari laguntzeko, baina, aldi berean, gure lurraldea mantendu behar dugu atzerriko inbertsioetarako erakargarri.

II. BLOKEA 2017-2020 INDUSTRIALIZAZIO PLANA

Bloke hau honako atal hauetan banatuta dago:

- Planaren hedadura-esparrua. Beste Sailburuordetza eta Sail batzuen erantzukizunei gainjartzen zaie; eta, zehazki, hauek hartzen ditu barne:
 - Industria sustatzeko politika eta tresna guztiak.
 - Industriaren lehiakortasun-faktoreei berriaz eragiten dieten Jaurkitzaren eskumeneko politika guztiak.
 - Eusko Jaurkitzaren edozein politika publikori lotutako industria-sustapena.

Planaren hedadura-esparrutik kanpo geratzen dira alderdi hauek: industria-lehiakortasunarekin lotura txikia duten energia-politikaren esparruak, esaterako, bizitegi-sektoreko eta hirugarren sektoreko energia-efizientzia, energia berriztagarri konbentzionala ekoiztea sustatzea; eta industriakoak ez diren sektoreetan (lehen sektorea, eraikuntza, turismoa, merkataritza...) eta elikagaien industrian zentratutako ekonomia-sustapena. Dena dela, sektore horietarako baliagarriak dira Industrializazio Planeko zenbait programa, tresna finantzarioak eta ekintzailtza-programak, kasu.

- Planaren printzipioak:
 - Ekoizpen-industriaren aldeko apustua. Industria gehiago eta hobea.
 - Industriaren kontzeptu zabala. Ekoizpen-jarduera eta teknologia baino gehiago.
 - Berregituraketaren eta hazkundearen arteko bizikidetzeta.
 - Ekonomiaren zeharkako ikuspegia.
 - Jarduera-kate osoak sustatzea.
 - Politikak segmentatzea.
 - Pertsonengan zentratzea.
 - Eragile askoren arteko lankidetzeta.
 - Arintasuna eta malgutasuna.
 - Ahaleginak ardaztea eta emaitzetara orientatzea.
- Helburu estrategikoak
 - Enplegu gehiago. Langabezia % 10etik behera murriztea.
 - Aberastasun handiagoa. Europar Batasuneko per capita BPGd-aren % 125 lortzea.

- Aberastasuna hobeto banatzea. Pobrezia-tasa % 20 murriztea.

Horiekin batera, helburu kuantitatibo bat ezartzen da → Industria gehiago. Industria izatea EAEko ekonomiaren BPGd-aren % 25.

Jaurlaritzak aurretik ezarritako marko horretatik abiatuta, 2017-2020 Industrializazio Planak beste helburu osagarri batzuk ere markatzen ditu:

- Industria hobea.
 - 4.0 industria paradigmaren fase berri bat iristea.
 - Merkatu globalean, EAEko enpresaren nazioarteko txertatze eta lehiakortasunean jauzi kualitatibo bat erraztea.
 - Lehiakortasunaren hobekuntza orokorra izatea, bai enpresa-motari, sektoreari, eta lurraldeari dagokienez (gera ez dadila inor atzean).
 - Enpresaburuaren beharrezko eta profil profesionalen eskuragarritasunaren arteko konexioa EAEko industriaren lehiakortasun-faktorea izateko oinarriak jartzea.
- Industria-politika efizientea.
- Jarduera-ildo eta ardatzak
 1. Enpresa txiki eta ertainei eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzea
 2. Industria-proiektu estrategikoak
 3. Teknologia, berrikuntza eta industria aurreratua
 4. Enpresak nazioartekotzea
 5. Lehiakortasuna sustatzeko testuingurua
 6. Ondo prestatutako pertsonak eta kalitateko enplegua
- 4.0 industria

Egitura horrek oinarri hartzen ditu 2014-2016 Planaren egitura eta Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programak proposatutakoa.

Aipatutako sei ardatzak, 30 jarduera-ildo baino gehiagotan zabaltzen dira, eta hainbat ekimenetan. 4.0 industria zeharkako ardatza da, eta jarduketa gehigarriak ez dakarren arren, garrantzi handia hartzen du Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako egin duen apustu estrategiko hau zehazten duelako.

ARDATZAK	JARDUERA-ILDOAK
1. ARDATZA Enpresa txiki eta ertainei eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzea.	a) Zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko lana sendotzea b) Finantza-keta-tresnak sustatzea, eta ekonomia-testuinguru berrira egokitzea c) Enpresa txiki eta ertainetako zuzendaritzen prestakuntza sustatzea, bereziki enpresa txikiei erreparatuta d) Enpresen jabetzan pertsonak parte hartzea sustatzea
2. ARDATZA Industria-proiektu estrategikoak	a) Tira-gaitasuna duten proiektuak garatzea erraztea, kasuan kasuko laguntza finantzario egokiena eskainiz b) Etorkizuneko energia-esparruetan garapen industrial eta teknologikoa sustatzea c) EAEko 4.0 industria ekosistema indartzea, erakarmen eta lankidetzaren gaitasuna duten eragile berriekin d) Industria-garapenerako aukerak sortzea 4i estrategian aurreikusitako inbertsio-proiektu estrategikoetan. e) Enplegua sortzen duen kanpoko inbertsioa erakartzeko eta mantentzeko politika areagotzea,

	<p>SPRlren Invest in the Basque Country ekimenaren bidez.</p> <p>f) Enpresei lehiatzeko gutxieneko tamaina lortzen laguntzea, egoki diren elkartzeko edo aliantzak erraztuz, kluster-politikaren, Jaurilaritzaren laguntza-lanen eta dauden diru-laguntzen programen bidez.</p> <p>g) Enpresa handi eta ertainek sustatutako negozio-lerro berriak garatzen laguntzea, barneko ekintzailatza sustatzeko ekimenen bidez (Barnekintzaile programaren bidez, batez ere).</p>
3. ARDATZA Teknologia, berrikuntza eta industria aurreratua	<p>a) Bultzada berria ematea I+G arloari, RIS3 estrategiaren, 2020ko ZTBParenta eta aurreko legegintzaldian hasitako ZTBESaren berrantolaketaen ildotik.</p> <p>b) EAEko industriaren digitalizazioa sustatzea, teknologien eta negozio-ereduei dagokienez.</p> <p>c) Sendotzea teknologikoa ez den berrikuntzarako EAEko industriaren gaitasunak.</p> <p>d) Erabakimenez sustatzea enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetzak, Euskadi 2015-2020 kluster-politikaren ildotik.</p> <p>e) Euskadi bilakatzea ekintzailatzarako lurralde erakargarri, Ekintzailatzako Erakunde Arteko Planaren bidez (UpEuskadi estrategia)</p> <p>f) Partaidetzako antolaketa-ereduak sustatzea Innobideak-Pertsonak programaren bidez</p>
4. ARDATZA Enpresak nazioartekotzea	<p>2017-2020 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Plana, zeinaren berrikuntza nagusia baita nazioartekotze-agentzia bat sortzea (haren forma juridikoa erabakitze dago oraindik) EAEko enpresei laguntza eraginkorra emateko behar den arintasuna lortzeko. Agentzia horrek jardura-estrategia oso bat abiarazteko ardura izango du.</p>
5. ARDATZA Lehiakortasuna sustatzeko testuingurua	<p>a) EAEko industriaren lehiakortasunari laguntzea 3E2030 Estrategian jasotako energia-politikaren bidez</p> <p>b) Enpresa-azpiegituren eskaintza garatzea</p> <p>c) Trenbide-, portu-, aireportu- eta logistika-azpiegiturak garatzen jarraitzea, gure industriaren lehiakortasunari eragingo dioten eta batez ere 2020az geroztik logistika-sektorea garatzen lagunduko duten epe luzeko proiektuen bidez.</p> <p>d) Industria- eta logistika-sektoreen arteko lankidetzak-aukera berriak sortu, Mugikortasun eta Logistika Kluster Federazio berria dinamizatuz.</p> <p>e) Industria Administrazioaren lana indartu Baimendutako Kontrol Organismoen ikuskaritza eta kontrolaren arloetan, eta enpresekiko harremana modernizatzea.</p> <p>f) Diskriminazio positiboko ekimenak abian jartzea alderatuta behartsuago diren zonetan, enplegua sortzen duten enpresa-inbertsioei lagunduz.</p>
6. ARDATZA Ondo prestatutako pertsonak eta kalitateko enplegua (hori ezartzea Hezkuntza Sailaren erantzukizuna da neurri handian)	<p>a) Industriako lan-profilen eskaintza eta eskaeraren arteko konexio hobea bilatzen laguntzea industria-politikaren bidez (Industria Sailburuordetzaren erantzukizuna)</p> <p>b) Prestakuntza-eskaintza espezializatuago eta egokituagoa garatzea (LHko eta Unibertsitateen Sailburuordetzaren erantzukizuna)</p> <p>c) Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa duala indartzea (LHko eta Unibertsitateen Sailburuordetzaren erantzukizuna)</p> <p>d) EAEko enpresei laguntzea euren nazioartekotze-prozesuetan, atzerriko lanbide-heziketako beharrezko erantzunez (LHko Sailburuordetzaren erantzukizuna)</p> <p>Prestakuntza-eskaintza nazioartekotutako enpresen beharrezko erantzunez egokitzea, beste herrialde eta kultura batzuetan prestatzea ahalbidetuko duten metodologiak sortuz eta eguneratuz.</p> <p>EAEko enpresen atzerriko instalazioetan etengabeko prestakuntzako jarduerak ahalbidetzea.</p> <p>e) Industria-bokazioak sustatzea bigarren hezkuntzako ikastetxeetan (baita lehen hezkuntzan ere), orientatzaileen prestakuntzaren eta gurasoen elkarrekin bileren bidez (Hezkuntza Sailburuordetzaren erantzukizuna)</p> <p>f) Gure herrialdeak etengabeko ikaskuntzaren aldeko apustua garatzea, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020an ezarritakoaren ildotik.</p> <p>g) Jaurilaritzaren industria-politikaren eta hezkuntza- eta enplegu-politiken arteko lankidetzak indartzea, koordinazioarako mekanismo berrien bidez (erantzukizun partekatua)</p>

4.0 industria	Aurrekoetan letra lodian markatuta daudenak dira.
---------------	---

- Hauxe da 2017rako aurrekontu ekonomikoa, arnazka:

	<i>Mila euro</i>	<i>Aurrekontu-zuzkidurako partida nagusiak</i>	
1. ARDATZA Enpresa txiki eta ertainei eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzea	75.349	Renove Makineria, Gauzatu, Bideratu, enpresentzako kredituen programa, inbertsiorako laguntza finantzarioak, Finantzen Euskal Instituturako ekarpenak enpresa txiki eta ertainak finantzatzeko, eta abar.	EGASen, SPRI taldearen eta Energiaren Euskal Erakundearen pertsonal-eta funtzionamendu-gastuak
2. ARDATZA Industria-proiektu estrategikoak 3. ARDATZA Teknologia, berrikuntza eta industria aurreratua	15.756	Enpresen I+G arloari laguntzeko programak, berrikuntzari laguntzeko programak, ekintzaitelza-programak, arrisku-kapitaleko funtsetarako ekarpenak proiektu estrategikoak finantzatzeko, eta abar.	
4. ARDATZA Enpresak nazioartekotzea	24.610	Enpresak nazioartekotzeko diru-laguntzak, beka-programak, SPRIren kanpoko sarea, eta abar.	
5. ARDATZA Lehiakortasuna sustatzeko testuingurua	80.235	Energia-politika, parke teknologikoak eta industria-lurzorua sustatzea, Administrazio industrialak, logistika-azpiegiturak, eta abar.	
GUZTIRA	295.950		
2. eta 3. ardatzak multzokatuta daude programa edo aurrekontu-partida bereberri lotuta egoten direlako bietako jarduketak, kasu askotan.			

Adierazten da aipatutako aurrekontu-baliabideez gain honako baliabide hauek ere izango dituela Planak:

- Urteko 600 milioirainoko abal-lerro bat eskuragarri egongo da.
- Arrisku-kapitaleko funtsetan eta Finantzen Euskal Institutuan eskuragarri dagoen finantzaketa-gaitasuna, aurreko urteetako aurrekontu-zuzkiduren eta hirugarrenen finantzaketaren ondorioz.
- Estatuko Gobernuak Europako funtsen bidez industria-garapena sustatzeko erkidego autonomoen esku utziko dituen partidak.

2017ko aurrekontuan abiatuta, Plana 2017-2020 aldi osora estrapolatzeak, guztira gutxi gorabehera 1.225 milioi euroko aurrekontu zuzena ekarriko luke, suposatuta urtero % 1,2 handituko dela oro har, eta % 5 berrikuntzarako partidetan, Gobernu-Programan hartutako konpromisoaren arabera.

III. BLOKEA GOBERNAMENDUA, PLANAREN AURKEZPENA

Planaren lidergoa eta Jaurlaritzaren beste arlo batzuekiko koordinazioa

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak (EGAS) da 2017-2020 industrializazio planaren sustatzaile eta arduraduna; Industria Sailburuordetzak SPRIk (eta haren mendeko sozietateak: Sprilur, Parke teknologikoak eta Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Sozietatea) eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) kudeatu eta koordinatzen dute.

II blokean azaldutakoaren ildotik, esaten da Industrializazio Planak oso ekarpen garrantzitsua eskatzen duela Jaurlaritzaren arlo hauetatik:

- EGASeko Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza Berrikuntza teknologikoari, teknologikoa ez den berrikuntzari, ekintzailatzari eta enpresen digitalizazioari loturiko jarduera-ildoan arlo arduraduna baita (Planaren 3. ardatzaren barruan).
- EGASeko Garraio Sailburuordetza, logistika- eta garraio-azpiegiturak garatzearen arduraduna baita (5. ardatzaren barruan).
- Ogasun eta Ekonomia Saila. Horrek ere funtsezko papera jokatu du, bera baita finantzaketa-tresnak abian jartzearen azken arduraduna eta haiek gauzatuko baititu; horiek Finantzen Euskal Institutuaren, Elkargiren eta Luzaroren bitartez bideratzen dira, baita EAEko enpresak hazteko eta errotzeko inbertsio-funts publiko-privatuen bidez ere (1., 2. eta 3. ardatzaren barruan).

Planak beste hiru arlotan ere koordinatzea eskatzen du, baina neurri txikiagoan:

- Hezkuntza Saila, eta neurri txikiagoan Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan-perfilen eskaintza industriaren beharretara egokitzeko arduradun gorenak dira; zeregin horretan Industria Sailburuordetzak laguntza-lana egiten du.
- Lan eta Justizia Saila. Alde batetik, arte hartzen du zailtasunak dituzten enpresentzako laguntzan; beste alde batetik, ekonomia sozialaren sustapenaren arduraduna da, eta hark koordinatuta egon behar du Industrializazio Planean jasotako partaidetzako enpresak sustatzearekin.
- EGASeko Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza. Elikagaien industria sustatzearen arduraduna denez, Sailburuordetza biak koordinatu behar dira konpartitzen dituzten jarduera eta tresnetan.
- Jaurlaritzaren beste arlo batzuk, neurri txikiagoan: Ingurumena, industria-proiektuak sustatzeko; Lurralde Plangintza, industria-lurzorua sustatzeko; Osasuna, bere jarduketek industria-garapenerako abaguneak sortzen dituzten neurrian.
- Lehendakaritza. Industrializazio Plana eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana koordinatzeko, eta, oro har, Jaurlaritzaren plan estrategikoak.

Koordinazio hori gaur egun dauden mekanismoen bidez egingo da batez ere, eta beste hiru tresna berrien bidez:

- Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena, Lanbide Heziketako Legearen proiektuan aurreikusitakoa. Planaren bigarren zeharkako ardatza sustatzeko bidea emango du; eta parte-hartuko dute Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak.
- Hezkuntza Saileko Hezkuntza eta Unibertsitate sailburuordetzekiko seihileko bileren sistema berria, Planaren zeharkako bigarren ardatza batera sustatzera bideratua.
 - Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2017-2020 Esparru Programaren Jarraipen Batzordea.

JAURLARITZAREN BESTE ARLO BATZUETAKO JARDUEREGIN ETA PLANEKIN KOORDINATZEKO MEKANISMOAK			
Jaurlaritzaren arloak	Industrializazio Planeko zer ardatzetan hartzen duten parte	Zerikusia duten planak	Koordinazio-mekanismoak
Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza	3. ardatza	Euskadiko 2020 Ekintzailetzako Erakunde Arteko Plana Euskadiko 2020ko Agenda Digitala	EGASEko Zuzendaritza Batzordea
Garraio Sailburuordetza	5. ardatza		
Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza	Zeharkakoa		
Ogasun eta Ekonomia Saila	1., 2. eta 3. ardatzak		Euskal Finantza Erakundeko Administrazio Kontseilua Arrisku-Kapitaleko Sozietateko Administrazio Kontseilua Luzaroko Administrazio Kontseilua
Hezkuntza Saila	Zeharkako 2. ardatza	V. LHko Euskal Plana, IV. Unibertsitate Plana	Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena Hezkuntza eta Unibertsitate sailburuordetzekiko sei hileko bileren sistema berria
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	Zeharkako 2. ardatza	Enpleguaren 2017-2020 arteko Plan Estrategikoa	
Lan eta Justizia Saila	1. ardatza	-	Kasuz kasuko koordinazio operatiboa
Beste Sail batzuk (Osasuna, Hezkuntza...)	2. ardatza (Industria sustatzea, 3i estrategiako inbertsio-proiektuetatik abiatuta)	Jaurlaritzaren plan estrategikoak	Jaurlaritzako Sailarteko Batzordea
Lehendakaritza	3. ardatza	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2020	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Batzordea
	Planaren ikuspegi osoa		Esparru-Programaren Jarraipen-Batzordea Zehazteko dauden beste mekanismo batzuk.

Instituzioen koordinazioa

Azaltzen da 2017-2020 Industrializazio Planak sailarteko koordinazioaz gain gainerako erakundeekiko hitzarmenak egitea eskatzen duela, batez ere Foru-Aldundiekin. Koordinazio hori batez ere Ekonomia-Sustapenerako Euskal Kontseiluan gauzatuko da, eta, horren osagarri, Planaren ardatz edo lerro espezifikoetan zentratutako beste tresna batzuk.

- Ekintzailtzaren Sailarteko Mahaia
- Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua
- Ekarpenen Administrazio Kontseilua
- Estatuko sektoreko mahaiak

Ekonomia- eta gizarte-eragileen parte-hartzea

Aipatzen da enpresa eta ekonomia- eta gizarte-eragileekiko etengabeko elkarrizketa dela industria-politikaren ezinbesteko ezaugarria, eta printzipio horri eutsiko zaiola Industrializazio Plana ezartzean.

Hori lortzeko, aurreikusten da gaur egun dauden foroak aktibo mantentzea: besteak beste, Kluster-elkarteak, Industria Egoeraren Behatokiaren urteko bilera, Euskadiko Lehiakortasun Foroa (erakundeetako, alderdi politikoetako, sindikatu etako eta enpresetako ordezkariak osatua), kanpoko adituen taldeak, eta egoera berezietarako *ad hoc sortutako aldi baterako* egiturak, sektoreko mahaiak (altzairugintza, untzigintza...).

Jarraipen- eta ebaluatze-sistema

Esaten da urtero egingo dela Industrializazio Planaren jarraipena, eta aurrerapenaren urteko hiru txosten egingo direla, 2018, 2019 eta 2020 lehen hiruhilekoan, eta egikaritze-txosten orokor bat (aurrekoak baino sakonagoa), legegintzaldia amaitzean edo Plan berria egitean.

Kasu guztietan, jarraipena bi alderditan egingo da: aginte-taula eguneratzea, eta 2017-2020 Industrializazio Planeko ardatz bakoitzaren balorazio kualitatibo eta kuantitatiboa.

Aginte-taula

Adierazle gutxiko aginte-taula proposatzen da, helburu estrategikoak neurtzera bideratuak.

2017-2020 INDUSTRIALIZAZIO PLANEKO ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK			
Helburua	Adierazle	Gaur egungo egoera (eskuragarri dagoen azken)	Iturria
Industria gehiago	Manufakturazio-industriaren pisua EAEko ekonomiaren BEGd orokorrean	% 23,95 (2015)	Eustat
	Industria-produkzioaren indizea (oinarria: 2010)	101,3 (2016)	Eustat
	Industria-sektoreko langile-kopurua	164.200 (2016, urteko batez bestekoa)	Eustat
	Zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko Jaurlaritzaren jarduketei esker aldian finkatutako enplegua	22.400 (guztira, 2013-2016 aldian)	EGAS
	Industria-proiektu estrategikoei laguntzeko Jaurlaritzaren jarduketei esker aldian sortutako edo finkatutako enplegua	Adierazlea ez dago eskuragarri gaur egun. 2017-2020 aldirako hura neurtzeko helburua ezarri da	
	Manufakturazio-industriaren eta lotutako zerbitzuen pisua EAEko ekonomiaren BEGd orokorrean	Adierazleak ez daude eskuragarri gaur egun. 2017-2020 aldirako haiek neurtzeko helburua ezarri da, EGAS-Eustat baterako proiektu batean, eta Eurostateko antzeko ekimenekin koordinatzen ahaleginduko da.	
Industria hobea	EAEko industriaren heldutasun-maila 4.0 industriaren paradigmagan	Ez dago eskuragarri	
	Unibertsitateko eta LHko titulazio teknikoetan matrikulatutako ikasleen kopurua	Hezkuntza Saila	
	I+G arloko gastu pribatua BPGd-aren gainean	% 1,84 (2015)	Eustat
	Industriaren esportaziorako joera (industria-esportazioen balioa industria-BPGd-aren gainean)	% 155 (2015)	Eustat
	Manufakturazio-industriaren ageriko produktibitatea (Alemaniarekiko aldea, ehunekoetan)	9,1 (2013)	Eustat eta Eurostat
	Industria-enpresa berritzaileen %, 10 langile edo gehiagoko enpresen kopuru osoaren gainean	% 41,3 (2013-2015)	Eustat

Ardatz bakoitza baloratzeko jarraibideak

Osagarri moduan, ardatz bakoitza baloratzeko jarraibideak gehitzen dira. Proposatzen da ebaluazio kualitatiboa konbinatzea balorazioa oinarritzeko baliagarri diren adierazle kuantitatibo guztiekin. Aurreko Planean ez bezala, proposatzen den adierazle-multzoa orientagarria da; adierazle batzuk edo besteak erabiliko dira honako hauen arabera: industriaren errealitatea, eta ebaluazioa egiten den unean Jaurlaritzak duen politika, eta datuen eskuragarritasuna.

Ardatzak	Baloratu beharreko alderdiak	Ardatz bakoitzaren balorazioa oinarritzeko erabil litezkeen adierazleak
<p>1. ARDATZA Enpresa txiki eta ertainen eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzea</p>	<p>Zailtasunak dituzten enpresei emandako laguntzaren intentsitatea eta kalitatea</p> <p>Enpresa txikien beharrezko eskaintako arreta-maila; zehazki, zuzendaritza prestatzen laguntzea</p> <p>Laguntza ekonomiko eta finantzarioko programen aniztasuna eta erabilera-maila</p> <p>Enpresen jabetzan pertsonen parte hartzearen bilakaera</p>	<p>Enplegu-Erregulazioko Espedienteek eragindako langile-kopurua (Eustat)</p> <p>Enpresen alden eta bajearen saldo garbia (Eustat)</p> <p>Zailtasunak dituzten zenbat enpresatan egin diren jarduketak, eta mantendu den enplegua (EGAS)</p> <p>Programa jakinen jardueren-maila (esaterako, lagundutako enpresen kopurua) (EGAS)</p> <p>Enpresen jabetzan pertsonen parte hartzea sustatzeko programekin lagundutako enpresen kopurua</p>
<p>2. ARDATZA Industria-proiektu estrategikoak</p>	<p>Jaurlaritzaren jarduketaren eragina tira-gaitasuna duten proiektuen sorreran</p> <p>Energiaren Euskal Erakundeak sustatutako edo lagundutako energia-proiektuen eta 4i estrategiako beste inbertsio-proiektu batzuen eragin industrial eta teknologikoa</p> <p>EAEko 4.0 industria ekosistemaren bilakaera (erakarmen eta lankidetzaren gaitasuna duten eragile berriak sortzea)</p> <p>Kanpoko inbertsioa erakartzeko eta mantentzeko gaitasunaren bilakaera, eta Jaurlaritzaren eragina</p> <p>Bareko ekintzailtza sustatzeko jardueren bilakaera</p> <p>Enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetzaren-maila. Enpresa-kontzentrazio edo -aliantza berriak sortzea, Jaurlaritzaren laguntza zuzena zein zeharkakoarekin (klusterren bidez, esaterako)</p>	<p>Trakzio-izaerako lagundutako proiektu estrategikoen kopurua (EGAS)</p> <p>Energia-politikatik eta 4i estrategiako inbertsio-proiektuetatik sortutako industria eta teknologia sustatzeko proiektuen kopurua (EGAS)</p> <p>Kanpoko inbertsio zuzena Euskadin, eta Invest in the Basque Country-ren jardueren (EGAS)</p> <p>Bareko ekintzailtza politikaren bidez lagundutako enpresa-proiektu industrial berrien kopurua (EGAS)</p> <p>Jaurlaritzaren laguntza zuzena zein zeharkakoa duten enpresa-kontzentrazio edo -aliantzen kopurua (EGAS)</p>
<p>3. ARDATZA Teknologia, berrikuntza eta industria aurreratua</p>	<p>I+G arloko inbertsio pribatuaren bilakaera</p> <p>Euskadiko industria-garapenean eragile teknologikoen duten rola bilakaera, 2015ean finkatutako helburuen arabera</p> <p>I+G arloari laguntzeko programen erabilera-maila eta eragina</p> <p>Fabrikazio aurreratuko Pilotatze-Taldeak sortutako proiektuak</p> <p>Enpresa txikiak zientzia eta teknologiaren euskal sistemarekin duten konexioa</p> <p>EAEko industriaren digitalizazioaren bilakaera, teknologiei eta negozio-ereduei dagokienez</p> <p>Industriaren digitalizazioari laguntzeko programen erabilera-maila eta eragina</p> <p>4.0 industriari lotutako zerbitzu aurreratuen garapen-maila</p> <p>4.0 industrian puntakoak diren eskualdeekiko akordioak</p> <p>Balio-kateak digitalizatzeko proiektuetan enpresa txiki eta ertainen duten inplikazio-maila</p> <p>EAEko industriaren teknologikoa ez den berrikuntzarako gaitasunaren bilakaera</p> <p>Enpresen arteko eta klusterren arteko lankidetzatik sortutako proiektu zehatzen jardueren</p> <p>Euskadiko jardueren ekintzailtza bilakaera, eta alor horretan zer eragin duen Jaurlaritzaren</p> <p>Industria-enpresetako partaidetzako antolaketa-ereduen bilakaera</p>	<p>I+G arloko inbertsio pribatua BPGd-aren gainean (Eustat)</p> <p>Jaurlaritzaren programen bidez lagundutako I+G enpresa-proiektuen kopurua, eta enpleguan duten eragina (EGAS)</p> <p>Eragile teknologikoei ezarritako helburuen betetze-maila (EGAS)</p> <p>LHko ikastetxeen bidez zientzia eta teknologiaren euskal sistemara sartzen diren enpresa txikien kopurua</p> <p>Ezagutzan intentsiboak diren jardueretako enplegua, %a (Eustat)</p> <p>Jaurlaritzaren programen bidez lagundutako digitalizazio-proiektuen kopurua (EGAS)</p> <p>4.0 industriari lotutako zerbitzu aurreratuen sektorearen fakturazioa.</p> <p>4.0 industrian puntakoak diren eskualdeekiko akordioetatik sortutako proiektu zehatzen kopurua.</p> <p>Balio-kateak digitalizatzeko proiektuetan parte hartu duten enpresa txiki eta ertainen kopurua.</p> <p>Teknologia-maila handiko eta ertain-handiko esportazioen bilakaera (Eustat)</p> <p>Produktu-prozesuan berritzaile diren enpresa txiki eta ertainak, %a (Eustat)</p> <p>Marketinean edo antolaketa berritzaile diren enpresa txiki eta ertainak, %a (Eustat)</p> <p>Merkatu eta enpresarako produktu berrien salmentak, salmenten gaineko %a (IUS adierazlea) (Eustat)</p> <p>Ekintzailtza-politikaren bidez lagundutako enpresa-proiektu industrialen kopurua (EGAS)</p> <p>Partaidetzako antolaketa-ereduak sustatzeko programekin lagundutako enpresen kopurua (EGAS)</p>

<p>4. ARDATZA Enpresak nazioartekotzea</p>	<p>2017-2020 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Planean ezarritakoaren arabera ebaluatuko da ardatz hau.</p>	
<p>5. ARDATZA Lehiakortasuna sustatzeko testuingurua</p>	<p>EAEko industriari eragiten dion elektrizitatearen araudiaren bilakaera</p> <p>Energiaren Euskal Erakundearen jardueren eragina EAEko industria-enpresetako energia-efizientzian eta energia-kudeaketaren hobekuntzan</p> <p>Espazio-eskaintzaren eta parke teknologikoen okupazio-mailaren bilakaera, eta lehiakortasunari eta industria-berrikuntzari laguntzeko duten rolarena</p> <p>SPirilurren industria-lurzoruaren eskaintzaren bilakaera, alderdi kuantitatibo eta kualitatiboetarako dagokienez</p> <p>Garraio- eta logistika-azpiegituren garapen-maila</p> <p>Industria- eta logistika-sektoreen arteko lankidetzatik sortutako proiektu eta jarduerak.</p> <p>Industria-Administrazioaren lanaren bilakaera</p>	<p>Energiaren Euskal Erakundeak lagundutako proiektuen bidez industria-sektorean aurreztutako energia-kontsumoa (EGAS)</p> <p>Energiaren Euskal Erakundeak energia-kudeaketa hobetzeko lagundutako enpresen kopurua (EGAS)</p> <p>Parke teknologikoetan alokairurako azaleraren handitzea (EGAS)</p> <p>SPirilurrek saldutako edo alokatutako m² kopurua (EGAS)</p> <p>Industria- eta logistika-sektoreen arteko lankidetzatik sortutako proiektuen kopurua</p> <p>Alderatuta hain behartsu ez diren zonetako enpleguaren bilakaera</p>

III.- GOGOETAK

Aldez aurreko gogoetak

Planaren edukian sartu aurretik, aldez aurreko gogoeta batzuk egin nahi ditugu industria-politikarekin eta EAEko industriaren etorkizunarekin zerikusi zuzena zein zeharkakoa duten guztiek (gizarte-eragileak eta bestelako eragileak) parte hartzeko prozesuari buruz.

Plan berak jasotzen du Industria Sailburuordetzak idatzi duela SPRIrekin eta Energiaren Euskal Erakundearekin lankidetzan, baina eragile publiko, pribatu edo sozial askoren elkarreaginek eraten dira gizarte modernoak. Arlo sozioekonomiko eta soziorabolean (eta industria-politika arlo horretakoa da), sindikatu- eta enpresaburu-erakundeei interes orokor eta publikoko hainbat funtzio esleitzen zaizkie.

Beste alde batetik, gizartearen konplexutasunak botere publikoei gomendatzen die elkarriketarako guneak bilatzeko, horien bidez gaur egungo erronka eta abaguneei erantzuteko.

Botere publikoen eta gizarte-eragileen arteko elkarriketa, Lanaren Nazioarteko Erakundeak gaur egun darabilen elkarriketa sozialaren definizioaren ildotik, gobernu onaren alderdi erabakigarri gisa sendotzen ari da gizarte demokratikoetan. Baieztapen horiekin bat datoz Jauriaritza eta haren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, 2016ko uztailearen 22ko Elkarriketa Sozialeko akordioetan jaso eta sinatu zen bezala. Horregatik, gure ustez, Plana idazteko prozesuan behar beste parte hartu ez izanak zailtzen diela orain eta etorkizunean EAEko industriaren etorkizuna (gure ongizate-ereduaren oinarritzko osagaia —Planaren Zirriborroaren 3. orrialdea—) denen artean eratzeko inplikatzeari enpresei, enpresaburuei, langileei, enpresaburu-elkarteei, sindikatuak, eragile teknologikoei, unibertsitatei eta lanbide heziketako ikastetxeei.


Gogoeta orokorrak

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditu:

Lehenik, duela 30 urte baino gehiago EAEn egiten ari den industria-politikaren azken urrats gisa taxutu da.

Gure iritziz, funtsezkoa da hain oinarritzkoa den gai honek ez jasatea norabide aldaketa apurtzaileak, eta **denboran zehar eraiki den ildoari jarraitzea**, eta ahalegin guztiak bideratzea erronka berriei erantzuteko behar dena egokitzeko eta doitzeko.

1980az geroztik Eusko Jaurlaritzak sustatutako industria-politiken eta ekonomia- eta lehiakortasun-sustapenerako politiken esparrua



Bat egiten dugu, neurri handian, plazaratu diren **kontestualizazioekin eta ingurunearen analisiarekin,** baita EAEko industriaren izango dituen **eraginei buruzko gogoetarekin.** Hala, Batzordea bat dator honako puntuekin:

- Hurrengo urteetarako aurreikuspenak positiboak izango dira, baina apur batean motelduko da hazkundea.
- BPGd-aren bilakaera onak ez digu pentsarazi behar krisia amaitu denik, langabezia-tasa oraindik handia da eta. Industriaren jarduera-maila oraindik urrun dago 2008ko mailatik, eta enplegua ez da errekuperatzen hasi 2016ra.
- Industriaren pisua oraindik urrun dago 2008ko balioetatik, eta, gainera, haren pisu-galera Euskadin handiagoa izan da Europako beste herrialde batzuetan baino.
- EAEko ekonomiak oraindik erakusten du nahiko ekoizpen-profil tradizionala (manufaktura-jarduera klasikoak, Metalgintza eta produktu metalikoak, kasu; eta Makineria eta ekipoak), eta zerbitzu aurreratuak ez daude oso garatuta; eskualde aberatsago eta dinamikoetan, ordea, pisu handia dute horiek.
- Enpresa txiki eta ertainak dira nagusi, Europako gainerako ekonomietan bezala, salbuespenak salbuespen. Jarduera Ekonomikoen Gidazterendako azken datuen arabera (2016ari buruzkoak) 158.436 enpresa daude EAEn, guztira, eta 854.114 pertsonari ematen diote enplegu; batez besteko tamaina, beraz, enpresako 5,4 langilekoa da. Europar Batasuneko batez besteko tamaina ere enpresako 5,4 langilekoa da (2014ko datuak, Eurostaten arabera); batez besteko horren gainean daude Alemania eta Luxenburgoko (9,9), Erresuma Batua (9,1), Danimarka (8) eta Austria eta Kroazia (7,1).

Eta ikuspegi konparatibo batetik:

- Krisialdiko urteetan, esportaziorako bere joera handitu du EAEko industriak, barne-eskaria amiltzearen ondorioz.
- Euskadiko I+G alorreko gastua handitu zen 2008-2012 aldian, baina harrezkerotik joera negatiboa erakusten du.

I+G ARLOKO ESFORTZUAREN BILAKAERA ETA HELBURUAK, HERRIALDEKA ERREFERENTZIAKO HERRIALDEAK, EUROGUNEA ETA E.A.E.							
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2020rako HELBURUA
EAE	2,01	2,01	2,06	2	1,93	1,84	
Eurogunea	1,99	2,04	2,1	2,11	2,14	2,12	Europar Batasuna = 3

Iturria: EUSTAT ETA EUROSTAT

- Energiaren kostua desabantaila da gaur egun estatu espainarreko industriarentzat, Alemania eta Frantziaren aldean, besteak beste.
- Euskadi erakargarriago bilakatu da atzerriko inbertsoreentzat; dena dela, 2016an moteltzea gertatu da.

Bat gatoz honekin ere: hazkunde apala aurreikusteak ez dakar berrekin aldaketa globalak moteltzea; izan ere, industriaren eraldaketa sakon baten aurrean gaude, mundu osoan Laugarren Industria-Iraultza eta Industria 4.0 izena eman zaiona.

Industrializazio Planera berera mugatuta, Batzorde honek oso egoki deritze aukeratu diren Planaren hiru printzipiori: ekoizpen-industriaren aldeko apustua (industria gehiago eta hobea), industriaren kontzeptu zabala, eta pertsonengan ardaztea.

Gure iritziz, oinarri teknologiko eta berritzailea duen "industria gehiago eta hobea" edukitzea funtsezkoa da etorkizuneko ekonomian behar bezala kokatzeko; orain, inoiz baino areago, industria ekoizpen-jarduera baino gehiago da, teknologia baino gehiago, eta pertsonak dira enpresen aktibo nagusia; bat gatoz, guztiz, hiru printzipio horiek aukeratzea arrazoitu duten planteamendu eta arrazoibideekin.

Egoki deritzogu, era beran, industria-politika eta harekin lotura zuzena duten beste politika batzuekin lerrokatzeari (hezkuntzakoak edo enpleguak, kasu), eta horretarako dagokien administrazio-egituren inplikazio eta koordinazioa bilatzeari, baita Ekintzailetzaren Sailarteko Mahaiarekiko sinergiak bilatzeari ere.

Azkenik, aipatzekoa da proposatzen den ebaluazioaren ahalegin eta diseinua, ez baita beti horrelakorik aurkitzen beharko luketen politika publiko guztietan.

Hori guztia esanda, **alderdi batzuk aipatu nahi ditugu, Planean txertatuta hura hobetuko luketenak:**

4.0 ereduari dagokionez

Lehenik eta behin, esan behar dugu kontsultatzeko ekarri diguten Planaren Zirriborroan ez dela zehazten, ez zuzenki ezta Jaurilaritzaren beste dokumentu batzuk aipatuz, 4.0ren zer eredu nahi den herrialde honetarako: integrala, nagusiki eskaintzakoa edo nagusiki eskaerakoa.

Kontsulta-organo honen iritziz, "lotura lauso" bat dago Industrializazio Planaren Zirriborroaren eta 4.0ri buruzko dokumentazio estrategikoaren artean (Fabrikazio Aurreratuaren Estrategia, kasu); eta, horretan sakonduta, esan behar dugu ez direla zehazten estrategia horrekin lotzeko mekanismoak ere, ez ebaluazioan, ez estrategia lortzeko espero den eraginean...

Joera globalei eta EAEko industrian duten eraginari dagokienez

Ikusita Planean nola deskribatzen diren joera globalak (33. orrialdean eta hurrengoetan) eta horiek EAEko industrian duten eragina, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere kezka agertu nahi du enplegu-eraketa

handia izango dutelako eta horregatik aurrea hartu behar zaielako aldaketa horiei eta azkar jokatu, bermatzeko eskaera txikiko sektoreetatik eskaera handiagoa duten sektoreetara aldatzea. Horretarako bermatu behar dira sektore-prospektzioarako guneak, zeinetan inplikaturik dauden eragileek parte hartuko baitute (gizarte-eragileak eta beste eragile batzuk); etengabeko prestakuntzako politikak eta politika aktiboak diseinatu eta ezarri behar dira; eta babes sozialeko sistema bat bermatu behar da zeinak ziurtatuko baitu erantzun egokia emango zaiela joera horiek pertsonengan izango dituzten eraginei, eta, aldi berean, ukitutako pertsonak kualifikatu sortuko diren lan berrietarako.

EAEko industriaren lehiakortasunerako erronkei dagokienez

7. puntuko azken paragrafoan ("Pertsonen aldeko apustu handiagoa", 41. orrialdean), hau gehitzea proposatzen dugu:

*"Desorekak zuzendu beharra dugu, premia, gure industriaren lehiakortasuna zein lanpostuen kalitatea sendotzeko. **Ildo horretan, Negoziazio Kolektiboa garatu behar da eta gaur egungo eta etorkizuneko erronkei egokitu; elkarreagin handiagoa eta etengabeko inplikazio estua behar da lanaren eta hezkuntzaren munduen artean; talentua mantendu eta erakarri beharra dago, eta gardentasunaren eta elkarrizketaren aldeko konpromisoa hartu behar da enpresan. Erronka horiek industria-ekosistemako eragile guztiek bat eginda jardutea eskatzen dute: enpresek, Jaurlaritzako sailek, unibertsitateek, sindikatuek, klusterrek eta enpresaburu-elkarteek eta abarrek.**"*

Enpresen dimentsioei eta Planaren Ardatz eta lerroei dagokienez

Enpresen tamaina txikiak dakarren desabantailaren eta behar adinako masa kritikoa lortzeko hartu beharko diren askotariko ekintzen ondorioz, Batzorde honek uste du ZEHARKAKO ARDAZTZAT jo daitekeela ENPRESEN DIMENTSIOA, ardatzen artean banatutako lerroekin, 4.0 INDUSTRIAREkin gertatzen den bezala, betiere ikuspegi holistikoa batekin.

Eta, testuinguru horretan, azpimarratu beharra dugu ez dela zehazki aipatu sustatu behar dela enpresa txiki eta ertainak ezagutza-zerbitzu aurreratueta eta horren finantzaketara iritsi ahal izatea. Gogoan izan behar dugu, haien tamaina txikiaren ondorioz, EAEko enpresek 4.0 ereduarekin eta nazioartekotzearekin bat egiteko behar direla, gainegiturez gain (klusterrak...), I+G+b-ren transferentzia eraginkorra sustatuko duten eta lehiakortasunez nazioartekotzea bermatuko duten eragile aktiboak. Eragile horiek, neurri handi batean, "Enpresentzako Ezagutza-Zerbitzu Intentzioak" izeneko kategorian daude.

Planaren gobernamentuari dagokienez

Batzorde honen iritziz, dokumentuan zehazten diren administrazio-egiturekiko koordinazioaz gain, funtsezkoa da atea irekitzea ekonomia- eta gizarte-eragileek eta planaren garapen eta gauzatzean inplikaturik dauden beste eragile batzuek parte har dezaten, etengabeko elkarrizketa baten bidez eta hainbat eratan kolaboratzeko aukera emanez; izan ere, horrek lagunduko du plana ezartzen, ez bairik gabe.

Testuinguru horretan, gure ustez beharrezkoa da Elkarrizketa Sozialeko Mahaia esanbidez sartzea 4.1.4 puntuan aipatzen diren erreferentziako solaskideen artean, hura baita Foro egokia beste foroetakoak bezalakoak ez diren informazio, irizpide eta ikuspegiak trukatzeko eta kontrastatzeko.

Gogoeta espezifikoak

1. “Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Planaren aurkezpena

2. orrialdean, 3. paragrafoan, ez deritzogu egoki “..., 80ko hamarkadaren hasieratik Gobernu hau sustatzen ari den bezala” esaldiari; horren ordez, aldaketa hau proposatzen dugu: “80ko hamarkadaren hasieratik **Eusko Jaurlaritza** sustatzen ari den bezala”

2.1. Planaren zergatiak eta aukerak

5. orrialdean, lehen paragrafoan, ez deritzogu egoki “Printzipio horien arabera jokatu du Jaurlaritzak 35 urte baino gehiagoz...”; horren ordez, aldaketa hau proposatzen dugu: “35 urtez baino gehiagoz **Eusko Jaurlaritza bultzatzen ari den bezala...**”.

2.2. Planaren blokeak eta hura egiteko erabili den metodologia

11. orrialdean, 6. irudian, ezkerreko beheko zutabearen (“Enpresa txiki eta ertainei laguntzea eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratzea”), proposatzen dugu hau gehitzea: **Alerta-sistema bat ezarriz, enpresak ixtea saihesteko.**

Izan ere, beharrezko deritzogu ekoizpenaren jarraitutasuna bilatzeari, alerta goiztiarreko sistema bat ezarriz, ezagutu ahal izateko, detektatzen den lehen unetik, enpresa bat krisi-egoeran dagoela, eta azkar eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

2.4. Euskadiko ekonomiaren eta industriaren egoera

- 15. orrialdean, proposatzen dugu “Egoera horrek, EAEko ekonomiaren produktibitatea hobetu dela erakusten duen arren, oso gizarte-inpaktu negatiboa izaten ari da.” paragrafoaren ordez, beste hau jartzea: **“Egoera horrek erakusten du EAEko ekonomiaren produktibitatearen hobekuntza oinarritu dela, neurri handi batean, enplegua suntsitzean”**
- 18. orrialdearen bukaera aldean, industriaren pisua eta EAEko ekonomia hirugarren sektorerara jotzea aipatzen da, baina ez du azpimarratzen hirugarren sektorerara jotze horrek ez dituela zerbitzu aurreratuak gehitu. Alderdi hori 20. orrialdean aipatzen da, baina ez da behar bezala nabarmendu, eta zuzenki lotu beharko litzateke 18. orrialdeko paragrafoarekin.

2.5. 2014-2016 Industrializazio Planaren Ebaluazioa

Deigarri egin zaigu 31. orrialdean Planaren ebaluazioa aipatzen duen taulan “gutxien aurreratu deneko arloak / erantzuteko dauden erronkak” atalaren barruan azpimarratu ez izana EAEko enpresek oro har duten tamaina txikia. Alderdi hori funtsezkoa da, zuzeneko lotura baitu nazioarteko lehiakortasunarekin eta 4.0 industria ezartzeko eredu konkretuarekin.

2.7. EAEko industriaren lehiakortasunerako erronkak AMIA taula

- Proposatzen dugu esanbidez aipatzea EAEko industria-enpresen tamaina txikia dela beraien ahulezietako bat. Komentatu dugun bezala, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako azken datuen arabera (2016ari buruzkoak) batez besteko tamaina enpresako 5,4 langilekoa da; hau da, Alemanian eta Luxenburgon (9,9 —2014ko datuen arabera—), Erresuma Batuan (9,1), Danimarkan (8) eta Austrian eta Kroazian (7,1) baino txikiagoa.

Egoera jakina izanik ere, garrantzitsua da gogoan izatea, mota guztietako politikak baldintzatzen baititu testuinguru horrek.

- Ahulezien artean “lan-kostuak” sartu dira. Batzorde honen iritziz, kostu horiek nolakoak diren zehazteko beste herrialde edo lurralde batzuekin alderatzen da, hau da haren “INGURUNEAREKIN”. Dena dela, lan-kostuak globalki lehiatzeko hartzen badira kontuan, beste herrialde batzuetako lan-kostuak mehatxua izan litezke gure lan-kostuekin alderatuta.

4.1. Kudeaketa- eta koordinazio-eredua. 4.1.4 puntua. Eragile ekonomikoek parte hartzea

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, dokumentuan zehazten diren administrazio-egiturekiko koordinazioaz gain, funtsezkoa da atek irekitzea ekonomia- eta gizarte-eragileek eta planaren garapen eta gauzatzean inplikaturako beste eragile batzuek parte har dezaten, etengabeko elkarriketa baten bidez eta hainbat eratan kolaboratzeko aukera emanez; izan ere, horrek lagunduko du plana ezartzen, ezbairik gabe.

Testuinguru horretan, gure ustez beharrezkoa da Elkarriketa Sozialeko Mahaia esanbidez sartzeari aipatzen diren erreferentziak solaskideen artean, hura baita Foro egokia beste foroetakoak bezalakoak ez diren informazio, irizpide eta ikuspegiak trukatzeko eta kontrastatzeko.

4.2. Jarraipen- eta ebaluatze-sistema


62. eta 63. orrialdeetako adierazle-taulei dagokienez, kontsiderazio hauek egiten ditugu:

- 12. taulan, kezkatzen gaitu garrantzi handiko zenbait adierazle eskuragarri ez egoteak, besteak beste, enpleguari, EAEko industriaren errealitateari edo prestakuntzari lotutako guztia.
- 13. taulan, uste dugu enplegua baloratu behar dela ardatz guztietan.
- Bi tauletan, faltan nabaritzen dugu gure enpresa-ehunaren dimentsioaren bilakaera neurtzeko adierazleak; halaber, zerbitzuak industriarekin lotzen dira, baina ez da jasotzen inolako adierazlerik Enpresentzako Ezagutza-Zerbitzu Intentsiboen eta enpresa txiki eta ertainek horietara iristeko duten ahalmenaren jarraipena egiteko.
- Bi tauletan, ahal dela, aginte-taulako adierazleen gaur egungo egoera ez ezik, zehaztu beharko litzateke 2020rako zer balio objektibo lortu nahi den proposatutako adierazle bakoitzean.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Araoetarako Batzordeak egoki deritzo "Basque Industry 4.0" 2017-2020 Industrializazio Planaren tramitazioari, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Bilbon, 2017ko ekainaren 30ean



O.E. Presidentea
Francisco José Huidobro



Idazkari nagusia
Emilia Málaga